



GIZAPEDIA

[gizapedia.hirusta.io](http://gizapedia.hirusta.io)

# ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Author: Josemari Sarasola

# 1 Zer den analisi ekonomiko-finantzarioa

Analisi ekonomiko-finantzarioa enpresako kontabilitate-informazioan oinarrituta egiten diren azterketen multzoa da, enpresaren egoera ekonomikoa (errentagarritasuna) zein finantzarioa (enpresaren inbertsioak eta finantzazioak nola egokitzten diren) jakiteko. Azter daiteke era estatikoan, une jakin bateko egoera zein den jakiteko; zein era dinamikoan, azken urteetako egoera ekonomiko eta finantzarioekin alderatuz, behar den kasuetan neurri zuzentzaileak hartu eta hurrengo urteetarako plangintza aurrerako eramateko erabakiak hartzeko asmoz.

## 2 Analisi finantzarioa: ratioak

Analisi finantzarioaren bitartez enpresa behar bezala finantzatzen den, epe luzera nahiz epe laburrera, ebaluatu nahi da. Horretarako ratioak erabiltzen dira bereziki. Ratioak bi ondare-masen erlazioak dira, zatiduraz adieraziak, une jakin batean (horregatik deitzen zaie baita ere egoera-ratio) enpresaren oreka finantzarioari buruz informazioa ematen dutenak.

### 2.1 Epe laburreko analisi finantzarioa

#### 2.1.1 Berehalako likideziaren ratioa

Berehalako eskuragarritasunaren ratioa eta berehalako altxortegiaren ratioa ere deitua, honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{eskuragarria}}{\text{pasibo korrontea}}$$

Enpresak epe laburreko zorrak ordaintzeko duen berehalako ahalmena neurtzen du. Balio egokiena 0.1-0.3 bitartekoa da orokorrean. Zenbat eta handiagoa den, orduan eta handiagoa da enpresaren likidezia; baino ratio handiegiak baliabideak alperrik galtzea da, eskuragarriak ez baitu errentagarritasunik ematen.

#### 2.1.2 Altxortegi arruntaren ratioa

Besterik gabe altxortegiaren ratioa eta *acid test* ere deitua, honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{eskuragarria} + \text{bihurgarria}}{\text{pasibo korrontea}}$$

0.8-1 bitarteko balioak hobesten badira. 0.75-0.8 balioetatik behera, enpresak zailtasunak izan ditzake bere zorrak kitatzeko. 1 baino handiagoa denean, enpresak likidezia gehiegi du.

### 2.2 Likideziaren ratioa

Epe laburreko kaudimenaren ratioa ere deitua, honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{aktibo korrontea}}{\text{pasibo korrontea}}$$

1.5-2.5 bitarteko balioak dira egokiak ratio honetarako. Aktibo korrontearen zati handiena erabilgarriak duenean hobetsiko dira 1.5 balioaren ingurukoak; eta zati handiena izakinek osatzen dutenean, 2.5 balioaren ingurukoak. 1 baino handiagoa denean, enpresak kaudimena du epe laburrera, epe laburrera kobratuko duena zorrak kitatzeko ordaindu behar duena baino handiagoa denez. 1 baino txikiagoa denean, enpresak ez du kaudimenik, eta ordainketa-etendura egoeran egongo da; hala, enpresa hartzekodunen-lehiaketa batean sar daiteke.

Maniobra-funtsarekin loturiko ratioa: maniobra-funtsa (aktibo korrontea ken pasibo korrontea) positiboa denean, ratioa 1 baino handiagoa da, eta enpresa finantza-orekan dago epe laburrera, epe laburrean jarduerak eskatzen dizkion baliabideak epe luzerako baliabideekin finantzatzen denez; negatiboa denean, ratioa 1 baino txikiagoa da.

## 2.3 Epe luzerako analisi finantzarioa

### 2.3.1 Bermearen ratioa

Porroterako distantziaren ratioa eta epe luzerako kaudimen-ratioa ere deitua, honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{aktibo erreala}}{\text{pasibo galdagarria}}$$

Balio egokia 1.5 baino handiagoa da. 1 baino txikiagoa denean, enpresa porrot-egoeran dago, eta hartzekodunen lehiaketan sartuko da.

### 2.3.2 Autonomia finantzarioaren ratioa

$$\frac{\text{pasibo galdagarria}}{\text{ondare garbia}}$$

1 baino aski handiagoa denean, enpresa besteren baliabideekin finantzatzen dela esan nahi du; 1 baino aski txikiagoa denean, berriz, enpresa baliabide propioekin finantzatzen da.

### 2.3.3 Zorpetze osoaren ratioa

Apalankamendu-ratioa ere deitua, honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{pasibo galdagarria}}{\text{ondare garbia}}$$

Autonomia finantzarioaren ratioaren alderantzizkoa da eta enpresa arrisku finantzarioa neurtzen du: zenbat eta handiagoa izan, zorpetzea eta beraz arrisku finantzarioa orduan eta handiagoa izango da. Hala ere, enpresak kaudimen-arazorik ez badu, ratioa handiak enpresak apalankamendu-efektua modu positiboan baliatzen dela esan nahi du.

Bitan banatu daiteke, pasibo galdagarrian pasibo korrontea eta ez korrontea bereizten direnean.

### 2.3.4 Epe laburreko zorpetze-ratioa

$$\frac{\text{pasibo korrontea}}{\text{pasibo galdagarria}}$$

1 baino txikiagoa da beti. Oso handia denean, enpresak zor gehienak epe laburrekoak direla esan nahi du, eta horrek likidezia-arazoak ekar ditzake.

### 2.3.5 Ibilgetuaren ratioa

$$\frac{\text{ibilgetua}}{\text{ondare garbia} + \text{epe luzerako pasibo galdagarria}}$$

1 baino txikiagoa izan behar da, epe luzerako finantza baliabideak aktibo korrontea finantzatzeko ere baliatu behar direnez.